

Herri komunikabideak, guztion erreferentzia

Herri bakoitzak dauka bere komunikabidea, eta eskualde osorako diharduten beste bi ere badira

Urrutira joan gabe. Esaldi hori da, hain zuzen, Oiartzungo Irratiak bere programazioan erabiltzen duen leloetako bat. Ondo adierazten dute hiru hitz horiek gaur egun Oarsoaldeko herrien egoera komunikabideen aldetik begiratzen badiogu. Gure herrietan bizi den edonork hainbat aukera baititu kanpoko komunikabideetara joan gabe bertako berriak jasotzeko, eta baita aldameneko herrietan gertatzen dena jakiteko. Eta informazioaz gain, une entretenigarriak igarotzeko ere aukera du bertako hedabideetan, beti hurbileko gaiak hizpide. Hurbiltasuna, seriotasuna eta profesionaltasuna uztartzen dituzten komunikabideak ditugu gurean.

Errenteriatik hasita, Zintzilik irratiak aipatu behar dugu lehenik eta behin. Autofinantzatze-ko zailtasunak dituen arren, 18. urte bete ditu; berri pozgarria benetan. Bertako kideek, gau eta egun, programazio zabala lantzen dute, FMko 100ean. Zintzilik-ek azpimarratu du irra-



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

■ ■ ■ Zintzilik irratiak bi kide, gailuen aldamenean.

tia herriko talde, elkarte eta pertsonen irekia dagoela eta edonork parte har dezakeela bertan. Astero irratsaio bat zuzenean eginez, grabatua utziz, deialdi baterako iragarkia eginez... modu askotara lagundu daiteke. Ostegunero, 20:00tik 22:00ra egiten dira batzarrak

eta interesatua dagoen oro bertaratu daiteke. Errenteria Udal Irratiak ere hainbat aukera ematen dizkie herritarrei ondo pasatu, musika ona entzun eta informatuak egoteko.

Oiartzunen ere herriaren ize-na daraman irratiak dugu. Hurbileko berriak, elkarrizketa inte-

resgarriak, musika, lehiaketak, solasaldi atseginak... programazio zabala azken finean, FMko 107an. Irratia osatzen duten kideek Hitz-hots komunikabide elkarte sortzeko asmoa dute, herrian dagoen informazio nahia asetzeko.

Aldizkariak hiler

Herri aldizkariak, bestalde, hiler herrietan gertatzen dena herritarren esku jartzen dute. Berriak eman, eta zenbait gai sakondu egiten dituzte, erreportai bikainak osatuz. Inguruko pertsonaia interesgarriak ere elkarrizketa bitxiak egiten dizkiete noiz edo noiz, eta, azken finean, inguruko giroa etxeetara ino eramaten dute. Aurten zorionak eman behar dizkiogu *Orratz!* Lezoko kultur taldeari. Izen bereko herri aldizkaria da haren produktuetako bat. Errenterian *Lau Haizetara* aldizkariak egiten du aipatutako lan hori. Eta Pasaian ere badugu herri aldizkari bat: *Branka*.


Arrosa gunea

Arrosa irrati ekoizpenerako zentroak gure irratiei hainbat mesede egiten dizkie. Arrosa izaera desberdina duten irratiek sortutako elkargunea da, Euskal Herri osoko tokiko 29 irratiarten artean sortutakoa. Zentro honek egunero bi irrati produktu ekoiztiko ditu, eta hainbat parte-hartze eskainiko ditu korte trukaketa informatiboak ekoizten dituzten irratiarten artean.

Bestalde, Arrosa egunero jarriko da kontaktuan emisorreetako albistegietako arduradunekin, esku artean zer gai dituzten jakiteko. Goizeko 10:30erako, faxez edo e-mailez, gaien zerrenda eskainiko du albistegiak ekoizten dituzten irratiarentzat. Irrati bakoitzak bere beharren arabera nahi duena aukeratu ahal izango du.

Biltzen den material horrekin guztiarekin eta beste zenbaitekin —mahai-inguruak, elkarrizketak, kolaborazioak eta beste—, Arrosak magazin bat ekoiztiko du egunero, uhineratu nahi duten irratiarentzat.

HAURTXO



HAUR ESKOLA LEZO

Polentzarrene, z/g
Tel.: 943 52 73 42




LEZO
Herri Eskola

LEZOKO ESKOLA

2 urtetik 16 urte bitarteko heziketa

Euskalerrria plaza z/g • Tel.: 943 51 48 04 • Faxe: 943 34 43 21

Zure
aisialdirako
gida



www.Egunkaria.com/agenda



yointflex® sl

JUNTURAK • ESTANKOTASUN PRODUKTUAK
ETA TUTUERIETAKO AKZESORIOAK

• Juntura mota guztiak. Zenbait adibide:
KLINGERIT, NEOPRENO, NITRILU eta abar;
ESPIROMETALIKOAK, METALOPLASTIKOAK, eta abar;
eskalizun handietarako ENPAKETAZIOAK, hala nola GFO, PTFE
GRAFITO HUTSA eta abar.

• LANTEGI ETA BULEGOAK:
Gaintxurizketa bidea, 7 • Tel.: 943 52 85 83 • Faxe: 943 52 85 84 - LEZO

OARSOAK

- EDARIAK -

Zuaznabar kalea, 137 - Ugaldetxo Industrialdea - 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 490 162 / 943 260 445 - Faxe: 943 493 956

GIPUZKOARAKO INPORTATZAILE ETA BANATZAILE OFIZIALAK



PAULANER